

AGUSTIN ADARRAGA:



Agustin Adarraga eta Maria Rosa Almirall emaztea, joan den urteko Gabonetan.

“Hernanira itzultzen naizenean etxera bueltatzen naizela sentitzen dut”

Agustin Adarragak (Hernani, 1931) hamazazpi urte zituela utzi zuen atzean Hernani. Madrilen eta Zaragozan izan zen lehendabiziz; eta lan arazoek behartuta, maletak egin, eta milaka kilometroko bidaiari ekin zion Maria Rosa emaztearekin. Australia izan zuten helmuga, eta han egin dituzte 56 urte; bizitza osoa. Urteek eta bi- zipenek, ordea, ez dute jaioterria aldatzen; eta, are gutxiago, sentimendua. “Agustin Adarraga, de Hernani” izenarekin sinatzen du beti, Agustinek.

Esti Zeberio Zubelzu

Abenduan 56 urte beteko dira emaztearekin batera, maletak egin, eta Australiarako bidea hartu zenuela. Zeren ondorioa izan zen erabaki hura?

Espanian zail zegoen gauza, ez genuen etorkizunik. Australiatik, ordea, berri onak zetozen. Deialdi bat zabaldu zuten bertan lan egin nahi zutenentzat, eta nire emazteak eta nik, orduan neskalaguna, pausu hori emateko eskatzen zuten elkarrizketa egin genuen. Baietza jasotzen bagenuen, ezkondu, maletak egin, eta Australiarako bidean jartzeko prest ginen. Bagenekien, gainera, Juan Jose Zabaletak, gure lagun minak esanda, Australian ba- zegoela lana, eta bizitzeko ematen zuela.

Eta nola joan zen elkarrizketa hori?

Egin genuen, eta gainditu ere bai. Ez zen, ordea, espero bezain sinplea izan. Elkarrizketan ondo moldatu ginen,

baina azterketa psikologikoan arazoak izan genituen. Ofizialista gisa eman nuen izena, baina nire abizena eza- guna egin zitzaizen, eta ideia burutik kentzen saiatu ziren. Maria Rosari, haurdun al zegoen ere, galdetu zioten... Azkenean gainditu genituen frogak, eta bizitza berri bati ekin genion Australian.

Nola gogoratzen dituzu Australian bizitutako aurre- neko urte haiek? Zaila izan al zen?

Oso zaila izan zen. Hasteko, hizkuntza, ingelesa, ez ge- nuelako dominatzen. Maria Rosa eta biok ingelesa ikasi genuen batxilergoan, baina Melbournera iritsi ginenean dena zen berria. Eta kulturak ere, ezberdinak ziren. Gu latinoak ginen; beraiek anglosaxoiak. Pentsa, bertako Udalera jo genuenean gure izenekin ere, arazoak izan genituen...

Izenekin arazoak? Eta hori?

Beraientzat ni Agustin(a) nintzen; eta nire emaztea Maria Adarraga. Jarri gure lekuan... dominatzen ez duzun hizkuntza batean, nola azaldu Espainian bi abizen erabiltzen ditugula? Eta Agustin frantsesetik datorren izena dela? Gauzak errazte aldera, ingelesez nire izena auto ingelesez berdina zela esaten nuen, Austin. Ezizena pilako izen bezala erregistratu behar izan nuen Commonwealth lanean hasi ahal izateko! Eta nire emazteak nire abizena hartu beste irtenbiderik ez zuen izan. Maria Rosa Almirall Vilaró izatetik, Maria Adarraga izatera pasa zen.

Nolako zen aurkitutako Australia?

Lana eta bizi kalitateari dagokionean, Espainian baino errazagoa. Iritsi eta gutxira unibertsitatean eman nuen izena; hiru urteko ikasketak egin nituen, eta ondo kokatu nintzen.

Zertara dedikatu zara Australian?

1960ko urtarrilean, peoi gisa hasi nintzen Melbournen. Ekainetik 1967ra Brisbaneko Gurutze Gorrian egin nuen lana. Blook Banken, biokimiko gisa kokatu ninduten, eta garai horretan joan nintzen unibertsitateara. Eta 1967tik erretiratu nintzen arte, manager eta biokimiko kliniko gisa aritu naiz lanean. 30 urte egin ditut Australiako Commonwealth Pathology Laborategian. Mediku patologo bat izan nuen nagusi gisa.

Familia ere izan zenuten...

Bai, bi alaba eta hiru seme: Rosemary, Maria Cristina, Xavier Jose eta Agustin Ramon; Brisbanen jaio ziren horiek. Eta Ignacio Townsvillen.

Non bizitu izan zara?

Hasieran, zazpi urtez, Brisbanen bizitu nintzen, eta 1967az geroztik, Townsvillen bizi naiz.

Nolako herria da Townsville?

Gabonetan euri tropikala izaten dugu; eta urte osoan zehar, klima atsegina izaten da. Townsville kostan dago, hondartza du... Donostia gogorarazten dit.

Erraza izan al zen ingelesa ikastea?

Niretzat ez... azkar ikasi behar nuen, denbora gutxian, lana bilatzeko behar beharrezkoa bainuen. Eta ikasi bakarrik ez, maila ona lortu behar nuen. B.Sc. karrera bukatu nuenean oraindik ez nintzen irakasleari ulertzeko gai. Azterketak idatziz egiten genituen, eta hala defenditzen nintzen. Bost urte behar izan nituen ondo hitz egiteko, nuen mailaren inguruan komentariok ez entzuteko. Gai honen inguruan eztabaida asko izan nituen Bill Douglassekin, Renoko (Nevada) Unibertsitateko euskara irakaslearekin. Horren arabera, euskaldunek erraz ikasten genuen ingelesa. Bai, Tarzanek hitz egingo lukeen ingelesa bai: bai, nik jan, nik edan eta hark pixa egin...

“Bost urte behar izan nituen ingelesa ondo hitz egiteko, nuen mailaren inguruan komentariok ez entzuteko”.



Agustin Adarraga joan den urtean, Basco de North Queenslanden egingako euskal festan.

Eta zein teknika erabili zenituen ahalik eta azkarren ikasteko?

Seme-alabei ingelesez hitz egiten hasi nintzen. Eta horretara ohitu nintzen, eta gaur egun ere, hala hitz egiten diet. Maria Rosak berriz espainolez hitz egiten zien, eta egun elebidunak dira.

Euskarak bizirik jarraitzen al du zugan? Transmititu al duzu familian?

Bai, nigan bai. Egunero irakurtzen dut KRONIKA. Emazteak katalanez hitz egiten du, eta etxean zein hizkuntza hitz egingo den erabaki behar izan genuen, eta espainola aukeratu behar izan genuen. Hemen, 'Club Vasco' delakoan elkartzeko garenean ere, egoerak hala behartuta, ingelesez hitz egin behar izaten dugu.

Adarragatar peto-pettoa izanda, kirola ere zure bizitzaren parte izan da Australian. Hernanin hain preziatua zenuen eskubaloiarekin saiatu bazinen ere, squashean egin zenuen karrera.

Squasha izan da nire bizitza. Familiako medikuak, Joe Leongek, esan zidan euskalduna izanda, squasha nire



Agustin Adarraga, euskal zentroan egindako ongi etorrian.

kirola zela. Eta hala, egun batean, squashean jokatzera eraman ninduen, bere lagun batzuekin. Squashak eta pilotak, zehazki palak, badute antza. Pilota bati jo, eta partaren kontra jokatzeko da. Fisikoa oso garrantzitsua da. Hala ere, ezberdintasun asko era badituzte bi kirolek: squasheko kantzak oso txikiak dira, pospolo kaxak ematen dute pilotalekuen ondoan... eta lau pareta dituzte, trinketeen antzera. Jokatzeko moduan ere, bada aldea... Hala hasi nuen squashean izandako ibilbidea, eta segituan elite mailara iritsi nintzen; eta bost urtetan, Open jokalaria onena izendatu ninduten; 36 urte nituen orduan. Toronton (Kanada) squasheko mundiala ere irabazi nuen, 50-54 urte arteko kategorian.

Zure seme-alabak ere, kirolariak izan al dira?

Bai, guztiak izan dira eliteko kirolariak. Agustin iritsi da urrutien; Australia, Espainia eta Europako txapelduna izan zen squashean; eta bi herrialdeen ordezkaria izandakoa da.

Deskubritu al duzue zein den adarragarrek duzuen gene hori, kirolerako plus bat ematen dizuena?

Genea baino gehiago, afizioa eta lan gogorra dira klabeak.

“Adarragarrok, kirolari genea baino, afizioa dugu. Lan gogorra da klabea”.

Nola definituko zenituzke australiarrek?

Zaila da definitzea, lortuko banu, Nobel Saria niretzako izango litzateke. Ingelesek handiuste asko dute, sorbaldaren gaintetik begiratzen dizute... Australia ingeles kolonia dela kontuan izanda... Hori erakusten duten adibide asko ditut, nik bizitutakoak...

Bizi dugun krisi ekonomikoak bultzatuta, geroz eta gehiago dira kanpora bizitzera joan behar izan direnak, eta herrialde askotan ez dira ongi etorriak izan. Noizbait sentitu al zara etorkin Australian?

Bai, eta oraindik, batzuetan, hala sentitzen naiz. Gaixotasun kroniko bat bezalakoa da.

Hernanin jaio zinen, baino urte gehiago daramatza-zu jaioterritik kanpo. Nola bizi duzu hori?

Hernani 17 urterekin utzi nuen Hernani, eta 84 ditut orain. Hala ere, beti izan eta sentitu naiz hernaniarra.

Joko Olinpikoekin kointziditzen, lau urtetik behin Hernanira etortzen saiatzen zara, adarragarren bilkurara. 2016an, Rio Janeiron dira eta uztailean duzue hitzordua.

Guretzat hitzordu garrantzitsua da, Rafa iloba eta biok hasi ginen antolatzen. Orain, ordea, mina sentitzen dut; osasun arazoak medio, ezingo dut parte hartu.

Hernanira etortzean, zein izaten da errituala?

Familia eta lagunekin elkartzea, txikiteatzea, euskaraz hitz egitea eta Adarrara igotzea. Azken hau ordea, ezinezkoa dut orain.

Nola mantentzen duzu sorterriarekiko duzun lotura estu hori?

Itzultzen naizenean, etxera bueltatzen naizela sentitzen dut. Tolosa pasatzen dugunean, kostea egiten zait eserita egotea; eta Urnietara iristen garenean, Hernani noiz hasi zain egoten naiz, irrikan.

“Bueltan naizenean eta Tolosa pasatzen dugunean, kostea egiten zait eserita egotea; eta Urnietara iristen garenean, Hernani noiz hasi zain egoten naiz, irrikan”.

Eta Hernanin geratzen zara etortzen zarenean?

Bai. Laureano Alustiza gure lagun mina etortzen da gure bila Donostiako tren geltokira. Gure egoitza Hernanin egoten da, Jose Luis Anza eta Mabel Irazusta iloben etxean geratzen gara.

Seme-alabak, bilobak... Australian jaiok dira gehienak. Zein da Euskal Herriarekiko eta Hernanirekiko duten lotura?

Bost seme-alabak Queenslanden jaiok dira, Australian. Horietako bi Madrilera ezkondu eta bertan bizi dira; eta bost biloba ditut bertan. Agustin eta bi alabek bost seme-alaba izan zituzten, hauek, Australian. Guztiak hartu izan dute parte Hernanin lau urtetik behin egiten dugun Adarragarren festan. Euskaldunak sentitzen dira.

Urteetan atzera egin eta Hernanin bizi zinen ume-gazte garai haietara joango bazina... Zer etortzen zaizu burura?

Zerbaitekin geratu beharko banu, euria gogoratzen dut; leihoko kristalean jotzean ateratzen zuen soinu hura etortzen zait burura...

Noizbait pasa al zaizu burutik Hernanira bizitzera itzultzea?

Ez. Australiara etorri eta bederatzi urtera, etxea, kotxea eta lanpostu on bat genituen hemen. Hala ere, Espainiara eta Euskal Herrira itzultzea erabaki genuen, egoera nola zegoen ikusi, eta bueltatzeko asmoarekin. Australian, gure bizilagunak, inongo karrerarik gabe, abereentzako pentsua salerosten zuen, eta dirua egiten zuen gainera. Espainian eta Euskal Herrian, anuntzio batean, lanpostu berdinerako albatari karrera eta bi hizkuntza eskatzen zituzten. Australiara itzuli ginen.